

A man with short dark hair, smiling, is driving a truck. He is wearing a red jacket. The truck's interior is visible, including the steering wheel and a rearview mirror with a decorative tassel. Rain is visible on the windshield. In the top left corner, there is a large white letter 'b' inside an orange square bracket.

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

521. zka.

XIII. urtea

2005eko martxoaren 11a

Adrian Langara

«Bidaiatzea askatasun handia  
ematen duen lana da»



# Jaika

jatetxea



- 25 - 30 lagunentzako jangela
- 6 - 8 lagunentzako jangela pribatua
- Karta zabala
- Enkarguzko menu bereziak  
15 €tik hasita
- Eguneko menua 7 €

Pedro Muguruza, 27 behea

Tel.: 943 74 10 29

## AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador  
Santa Klara



Neinor

NEINOR Azkoitia  
Julio Urquijo Etorbidea, 10  
20.720 AZKOITIA

☎ 943 852 411 - 943 317 511

- 3 logelako etxebizitzak eta  
4 logelako duplexak behealde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua  
hegoaldera begira eta bista panoramikoak.



AINHOA MENDIBIL



AMAIA GORROTXATEGI

## ZOZOAK BELEARI...

"Los borrachos y los niños nunca mienten" entzun nuen nagusi baten ahotik aspaldi. Eta beste hainbeste urte badira lehen aldiz nik neuk erabili nuenetik. Ziur nago askok ez diotela behar baino garrantzia gehiago emango esaldi ziztrin honi. Horiei: biba zuek!!

Nik berriz, sarritan izan dut buruan (zapatuetan, batez ere). Laguna, edo beste norbait tontakeriak esaten hasi, eta..."Los borrachos y los ni..." burura niri.

Askotan, tontakeriak baino egi gordinak esan izan ditu albokoak. Denok ondotxo dakizkigun egiak. Inork inoiz esango ez lituzkeenak, hain zuzen ere.

Eta horrelakoetan, ahoa ironiaz bete, sarkasmoa mingain puntan eta horra hor ni..."Los borrachos y los ni...". Ez dakizue ze ondo geratzen naizen!

Baina onena gero datorrena da. Hor hasiko baita kalimotxo zein txupito gehiegi edan dituen "Ni berez ez naiz holakua" esanez inguruko denak konbentzitu nahian. Eta berriz ere izango da ni bezalako norbait, eta gustura..."Los borrachos y los ni..." (eta barre, eta barre, eta barre).

Amaia, zu sekula izan al zara zu zeu, txupitok medio izanik?

PD Bihar EGAKo azterketa idatzia daukat. Aholkurik bai, Amaia?

Patxo bat danoi.

«Mozkorrek egia gordinak esaten dituzte, ironiaz beteak»

AINHOA

«Mozkorrena da mundua, besteek zer esango kezkatu gabe»

AMAIA

Ez da zaila esaldi hori aditzea boteloilaren herrian bizi garela kontuan izanik!! Mozkorraz lotsatzen gara gehienok, kontuan izan gabe momentu horretan dela, bera benetan den bezalakoa. Soilik egin egiten du, ez du pentsatzen albokoak zer esango duen, zer pentsatuko duen, mundua berea da. Dantza egin gura badu, dantza egingo du, ez dakien abesti bat kantatu nahi badu kantatu egingo du, neska eder bat ikusten badu "rubia!!" oihukatuko du edozein dela bere ilearen kolorea, eta pixa gura badu?? Jarriko dioten isunak poltsikoan joko dion zaplastekoarekin mozkorra pasako zaio. Baina gezurra esan nahi badu, aterako zaion bakararra "ni berez ez naiz holakua"izango da. Kalimotxo zein Errioxako ardoak (gazteak bakarrik ez dira mozkortzen e!!) ateratzen du bakoitzaren benetako nortasuna, batzutan ezkutatu beharrekoa eta askotan arazoirik gabe ezkututzen duguna.

Halere, ez dezala inork pentsa mozkorraldiei apologia egiten ari naizenik. Egia esan, sekulako kaltea egiten die mozkorraldiak egunero egunero disfrazatzen dien horiei!!

PD: Zu lasai, bota sekulako diarrea berbala!! Eta "in albis" geratzen bazara, bota horrenbeste gustatzen zaizuna: " Los borrachos y los niños nunca mienten".



EZ DIRA BERTUTEAK, BIZIOAK BAIZIK,  
GIZONA ALDI ORO NOR DEN ERAKUSTEN DIGUTENAK



Umberto Galimberti

## Eskerrak

Mendaroko Musika Eskolak eskerrak eman nahi dizkie otsailaren 5ean Santa Agedako koruetan parte hartu zuten guztiei bertan jaso zen dirua eskaini digutelako. Guztira 2.500 euro jaso zituzten Mendaroko koruek eta, gastuak ordaindu eta gero geratu diren 1.300 euro izan dira Musika Eskolarentzat.

Mila mila esker guztioi.

MENDAROKO MUSIKA ESKOLA

## 5.219 elgoibartar Europako Itunaren alde?

Hori irakur zitekeen duela bi aste Barren astekariak Europako Itunaren inguruko erreferendumari buruz argitaratu zuen artikulua izenburuan. Hala ere, artikulua osoa irakurri gero ohar gaitezke berez Itunaren alde azaldu zen elgoibartarren kopurua 2.155 izan zela. Datuak argiak dira:

Abstentzioa: 5.230 boto, %58,23

Bai: 2.155 boto, %23,9

Ez: 1.447 boto, %16,1

Ondorioz, artikulua izenburua ez zen zuzena. Izan ere, goiko datuak islatu beharko lituzke eta, zegoen bezala, albistearen esanahia oso bestelakoa zen, Elgoibarren abstentzioa nagusitu zen-eta.

PELLO MENDIZABAL



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

# [b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04  
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasoñe Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZALEA Jaiñe Unanue KOLABORATZAIK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garatza, Amaia Gorroategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe KE, Uruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESANEA ZAHARRA Golzen Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 2an, 76 urte zituela hil zen *Jose Mari Agirregomezkorta Elizbururen* sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## I. URTEURRENA

2004ko martxoaren 20an, 80 urte zituela hil zen *Rufino Ansola Agirregomezkorta*ren oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, martxoak 20, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartza parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.







KEXAK



- Herritar batek esan digunez, **Musika Eskola zaharreko eraikinean leihotako kristalak erori beharrean daude**: “Musika Eskola zaharreko kristalak erabat puskatuta daude, eta edozein momentutan erori daitezke behera. Toki horretan Leku Ederreko parkea dago, eta ume mordoak ibiltzen da bertan. Ezbeharren bat gertatu aurretik konpondu beharko litzateke”.
- Herritar batek esan digunez, **Osasun Zentroan gazteleraz egin behar izan zuen txanda eskatzeko**: “Medikuarekin txanda hartzeko asmoz joan nintzen arratsalde baten Osasun Zentrora, eta harreran ez zegoen euskaraz zekien inor. Azkenean gazteleraz egin behar izan nuen berba. Berriz ere, euskaldunak amore eman behar bere herrian, eta gure hizkuntza eskubideak betetzen ez direla ikusi behar. Arazo hau lehenbailehen konpondu beharra dago”.



TXALOAK

Herritar batek **Gabonetan Madalako semaforoa izorratu zuen mutila** txalotu nahi du: “Sekulako mesedea egin zion herriari. Semaforoa hondatuta egon zen denboran, Elgoibarko trafikoa izugarri hobetu zen, ez zegoen kolarik, eta ez zen alferrikako semaforo gorririk itxaron behar. Espero dut ordaindu beharreko isuna garestiegia ez izatea, inori ez baitzion kalterik egin”.

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



eusko  
alkartasuna



Hauteskunde Autonomikoetan

**KORREOZ BOZKATZEKO ZERBITZUA**

**Alkatetxea**

Jausoro Plaza, 4  
20870 Elgoibar

**Informazioa:** 943 53 12 99

**Ordutegia:**

**Arratsaldez:**  
Asteleheneretik / Ostiralera  
18:00etatik 20:00etara

## ALBOKUAK INMOBILIARIA



**ERDIALDEAN**  
130 m<sup>2</sup>ko etxea, 30 m<sup>2</sup>ko engongela tximinia-rekin, hiru logela, sukaldea eta komuna. 65 m<sup>2</sup>ko ganbara etxearekin komunikatuta.

**URASANDIN**  
Egongela, 3 logela, sukaldea, komuna eta aseoa. Ganbara eta gara-jea

**Pinudiak saltzen ditugu.**

**ETXEBIZITZA**

**BERRIAK**

**ERROSARIO KALE-**

Errosario, 12

Tel.: 943 74 06



## URRUZUNIOREN *Luma*

### Gaur nirekin esnatu zara

Zuk utzitako liburua irakurtzen egon naiz hondartzaren parean, udazkeneko izpien gidaritzapean zuk arkatx leunez azpimarratutako lerroak kausitzen Oraindik zurekin eta hala ere zu gabe, bizitza erortzen zait... zuretasunean, zorotasunean, osotasunean.. eta malkoak isuri ditut berriro. Berrito eta berandu. Gaur nirekin esnatu zara, baina ez zeunden nirekin.

*Maite Uriarte*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### AITOR ALZAGA

LOJANTZI TABERNAKOA

Noiz egin duzu azkeneko...

• **Negar?**

Duela gutxi, oraindik gogoan daukat.

• **Bidaia bat?**

Duela hilabete inguru Pontevedrara joan nintzen hileta batera. Hori izan da nire azken bidaia.

• **12 ordu segidan lo?**

Puff! Ez naiz gogoratzen hainbeste ordu lo egin nuen eguna.

• **Parranda on bat lagunekin?**

Aspaldi ez dut lagunekin parranda on bat egin. Ez naiz gogoratzen azkena noiz izan zen. Orain lan asko daukat.

• **Gezur bat esan?**

Astero esaten dut gezur txikiren bat, baina intentzio txarrik gabe. "Mentiras piadosas" deitzen diren gezurtxoak.

• **Kirola?**

Aspaldi. Ez daukat ezertarako astirik. Denbora libre apur bat daukadanean deskantsatzeko aprobeztatzen dut.


• **Zinera joan ?**

"El señor de los anillos" trilogiaren lehenengo palikula ikusterera joan nintzen azkeneko aldiz.

• **Liburu bat irakurri?**

Ez dut libururik irakurtzen, egunkaria bakarrik.

## komikia



*Kokoe 009*



## [AKORDATZEN NAIZ]



**FELISA BERGARETXE**

1915an jaioa

### «Lana»

**D**anetarik egin dot nere bizitzan. Elgoibarrera etorri nitzanian, Alkortan hasi nitzan lanian. Gero, josten ere jardun naban Sigman, josteko makiñak probatzen. Hango makiña bat izugarri gustatu zitzatan, eta erosi egin naban.

Nere koñatuak janari-dendia jarri zaban, eta berak esan zidan nahi banaban neri ere jarriko zidala denda bat. Itxuria, ganora apur bat banaukan lanerako, eta, hola, dendan hasi nitzan lanian.

Janari guztixa neurtuta zagan, rasionauta. Ezer ez zagan sobran. Anekdotak bezela, Ermuaranbide kaliari neuk ipiñi nion ONU izena. Kamioilarixak etortzen ziran dendara

kale haren billa, eta behin bati esan nion: "hori ONU da, nazionalidade guztixetako jendia bizi da han: galleguak, extremeñuak, euskaldunak...". Handik aurrera, ONU izenakin gelditu zan.

Gerora, tabernia ere eduki gendun, eta sukaldari lanak egin nittuan. Txikiteua sasoi haretan ez zan oin bezela izaten: gizonak ibiltzen ziran txikiteuan, baiña ez egunero. Emakumiak tabernarik taberna ibiltze hori oso gaizki ikusitta zagan.

Gaur egun gauza horrek asko kanbixau dira. Lehen emakumia etxian egoten zan, umiak zaindu eta gizonantzako jatekua preparatzen. Oin bezela, ala?

## [GURE BERBAK]

### Onomatopeiak (1)

Gure inguruko hotsak imitatzeke erabiltzen diran berbak dira onomatopeiak. Ahozko jardunian asko erabiltzen dira, bai adiñekuen hizkuntzan, bai umienian ere. Batzuetan soiñuaren imitaziaren ondorioz, hiztegiko beste edozein berba bezain autonomuak sortzen dira: txorrostadia, eupadia, dangatekua, eta abar. Hona hemen, konparazio batera, onomatopeia batzuk:

- *Bolo-bolo jabik herixan kontu hori.*
- *Okerra egitten zabanari, danga maixu harek!*
- *Barra-barra entzuten dok erderia gure kalietan.*
- *A ze burrundaria etaratzen daban Mikelen motor berrixak!*
- *Bildurran bildurrez, gorputza dar-dar batian naukan.*
- *Gaur egunian, kotxia hartu, eta di-da juaten da jendia edozein lekutara.*

*Jesus Mari Makazaga*



### ESKERTZA

2005eko martxoaren 4an, 77 urte zituela hil zen *Laura Etxabe Garitazelaiaren* sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

2005eko martxoaren 2an, 65 urte zituela hil zen *Jesus Sanchez Palomoren* emazteak, seme alabek, arrebak eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**ADRIAN LANGARA** XAUEN BIDAIAK

## «Bidaiatzeko pozoia Afrikak sartu zidan Marokora estreinakoz joan nintzenean»

*Xauen Bidaiak sortzarekin batera bizimodu ezberdin eta bereziaren aldeko apostua egin zuen Adrian Langara elgoibartarrak 22 urterekin. Furgoneta zahar bat erosi eta bidaiari taldeak gidatzen hasi zen Afrikako eta Europako lurraldeetan zehar. 15 urte daramatza Elgoibartik kanpo eta 17 urte bidaiak antolatuz. Urbasa hegoaldean bizi da egun, Urederra erreka iturburutik gertu dagoen 100 biztanleko herrixkan. Bertan aurkitu du horrenbeste bidaiak eta abenturen atseden lekua. Marokotik etorri berrikan topo egin dugu berarekin eta elkarrizketa hau irakurtzen duzuenarako Parisen izango da, magisteritzako azken 3 hilabeteak bertan ikasi behar baititu.*

### 👤 Noiztik daukazu abenturarako grina hori?

Naiorobitarraren eskolakoia naiz. Lehen bidaiak Gredoseko mendilerora (Extremadura) egin nuen, 21 urterekin. Koska musika taldeari furgoneta zaharra erosi, mendi-bizikletak barruan sartu eta sei laguneko talde bat osatu genuen. Oso ondo irten zen dena eta Egin egunkarian publizitatea jarri ostean, Holandara eta Belgikara antolatu nuen hurrengo bidaiak uda partean. Etorkizuna gidari izatetik bidera nezakeela ikusirik, Mekanikan automozioa ikasten ere hasi nintzen.

### 👤 Zergatik Xauen bidaiak?

Pasaportearekin egin nuen garrantziko lehen bidaiak Marokora izan zen. Bakarrik egin nuen, erdi autoestopean eta diru oso gutxirekin. Fez zen nire helburua, baina autoestopean hartu ninduen madrildar batek 18 urterekin Fez-en jan egingo nindutela eta, Xauen-era joateko gomendatu zidan. Xaunen pasa nituen bost egunak beti gogoratuko ditut. Bidaiatzeko eta itzultzeko pozoia sartu zidan Marokok, Afrikak.

### 👤 Zein herrialdetara antolatu dituzu bidaiak?

Europara eta Afrikako mendebaldera: Maroko, Mauritania, Argelia, Senegal, Mali, Ginea

Bissau, Ginea Kronaki, Niger. Batzuetan 2-4 hilabeteko bidaiak luzeak egiten ditut Afrikan. Dirua amaitzen denean furgoneta saldu eta buelta. Taldeak zortzi lagunekoak izaten dira gutxienez



baina 16-17 izatea da normalena. Hiru asteko bidaiak bat 900-1000 eurotan ateratzen da. Ikasleen kasuan 600 euro ingurutan ateratzen zaie.

### 👤 Zein da bidaiatzeko darabilzun filosofia?

Bertako jendearekin ahalik eta kontaktu gehien izaten saiatzen naiz.

Marokora noanean bertako familiekin kontaktua daukat eta beraien etxeak nekazal turismo Afrikarrak modukoak dira. Bestalde, autokarabanak autonomia eta beharrezko guztia eskaintzen ditu: literak, sukaldaria... Barraskilo bidaiak gisa definitu daiteke. Gainera, talde dinamika da nagusi, sukaldatu, garbiketara eta mila gauza egiten baitira elkarlanean.

Horretaz gain, bakoitzak ikusten du zertan lagundu dezakeen, norbere trebetasunen arabera.

### 👤 Zer eskaintzen dute zure bidaiak ohiko agentzia batek eskaintzen ez duena?

Harremana pertsonalagoa eta humanoagoa da. Agentziekin erosotasunean ezin dugu lehiatu, baina egoera ezberdinetara egokitzeko gaitasuna eta gogoia duen edonorentzat dira aproposak. Batetik ikasbidaiak asko egiten ditut eta bestetik, "entsalada" taldeak daude. Komunikabideetan iragarkia jarri eta 25 eta





«Harreman  
personala  
eskaintzen  
dute nire  
bidaiiek»

50 urte arteko talde heterogeneoak osatzen dira. Bidaia oso malguak dira. Batzutan bi ibilgailu eramaten ditugu plan ezberdinetarako aukera izateko. Noizean behin taldetik aldendu eta arnasa hartzea ondo etortzen da.

#### 👤 Lanetik kanpo bidaiatzen al duzu?

Lehen gehiago. Magisteritza ikasten ari naiz Iruñean eta azken hiru neguak lotuago eduki ditut.

Neguan Afrika beltzera joateko joera daukat. Egin ditudan bidaien artetik inpaktanteenak dira, eta baita gogorrenak ere.

Gizon txuririk ikusi ez duten lekuetan barneratzea harrigarria da. Hasieran kuriositateak jota inguratzen zaituzte, baina gero sortzen diren harremanak bereziak dira.

#### 👤 Nora joango zinateke urte sabatiko bat hartuz gero?

Belaontzian bidaiatzeko esperientzia oso tentagarria iruditzen zait. Aurrez lana eskatzen du, ordea, kapitain tituloa atera, esperientzia hartu... Gero eta gertuago ikusten dut aukera.

#### 👤 Egingo al diguzu Aste Santurako plan bat?

Penintsulan bertan aukera oso interesgarriak daude, batez ere hegoaldean. Aurrekontu txikiarekin kultura aldaketa handia bizi daiteke Andaluzian, Grazalemako mendilerroan, esaterako.

#### 👤 Udan nora bidaiatuko duzu?

Cerdeñara. Korsikara 12 urte inguru daramazkit joaten. Erakargarria da, mendia eta hondartza ikusgarriak baitutu, baina abuztuko lehen hamabostaldian apur bat saturatuta egoten da. Cerdeña Korsikaren tankerakoa da, baina turismoa gutxiago esplotatuta dago.

#### 👤 Zer erlazio duzu kamioarekin?

Gorrotu-maitasun dikotomia da nagusi. Mimo eta masaje asko behar ditu, baina asko kostako zait kamioiari agur esatea. 92tik daukat oraingo autokarabana.

#### 👤 Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Bizimodu hau betirako ez dela-eta, magisteritza ikasten hasi nintzenean lagatzeko asmoa nuen, baina bidaien eritimoa pixka bat jaitsiz biak eramateko

gai nintzela konturatu nintzen. Bidaiatzearekin pozoituta nagoela jabetu naiz. Bizimodu sedentariora pausoz pauso itzuli beharko dut.

#### 👤 Lan erakargarria dirudi zureak, baina izango du alde txarrik ere.

Asko bidaiatzen duzunean hemengo erreferenteak ez daude horren sustraituak. Askatasun handia ematen duen lana da, baina ezegonkortasun dextentekoa. Egunetik egunera bizi naizenez oreka ekonomikoa lortzea zailagoa da. Bestalde, erabakiak hartzeko izan dudan askatasun eta malgutasunak asko balio du eta nahi dudan lekuan bizitzeko aukera eman di. Azkenik, kezak etxera iritsi arte eramaten dira motxilan, baina talde dinamika oso betegarria da.

#### 👤 Horrenbeste bidaiiek zure pentsatzeko era aldatu al dute?

Bai, mundua ikuspuntu ezberdinetatik ezagutzeko aukera izan dut. Hemengoa beste era batera neurtzen duzu, beharrak, kontsumoa... Gu baino 10 aldiz gauza gutxiago izan arren, Afrikan aurkitzen dituzun irriparrak ez daukate jabetzarekin zerikusirik.

«Urte  
sabatikoa  
belaontzi  
batean  
pasako nuke»



## [ PROTAGONISTA ]



Anjel **Ajobita**

Martxoaren 5ean hil zen Angel Ajobita elgoibartarra. Herritarren artean oso ezaguna zen Ajobita, izan ere, 60-70 hamarkadetan alkate izan zen. Are eta gehiago, Angel izan da alkate lanetan urte gehien eman dituen elgoibartarra, 16 urte inguru, hain zuzen ere. Alkatetzara iritsi aurretik, zinegotzi lanetan ere beste 6-8 urte inguru egin zituen. Alcorta y Unzueta enpresan lanean aritu ostean, Marcelo (+) eta Jose Luis anaiekin Ajobita S.A. enpresa sortu zuen 1951. urtean. Pasa den astean aipatu genuen sei hilabetetan ateak itxiko dituela enpresa honek.

## [ NOTIZIA ]

### Elgoibarko Etxebezitzen prezioak %78 garestitu dira azken bost urteotan

**A**zken urteotan etxebizitzaren prezioak jasas duen gorakadak, Elgoibarren ere izan du eragina. 2000. urteko gaur egunera, etxebizitzaren prezioa %78 garestitu da gure herrian.

Etxe berri baten metro karratuak 2000. urtean 1.800 euro balio zituen. Gaur egun, bost urte beranduago, 3.200 eurotan dago etxebizitza berrien metro karratua. La bikoiztu egin da bost urtetan metro karratuaren prezioa. Honela, 2000. urtean 82m<sup>2</sup>ko etxebizitza batek 147.600 euro balio bazituen, gaur egun 262.400 euro balio ditu.

#### Bigarren eskukoak

Etxebizitza berriak garestitu diren bezala, bigarren eskuko etxeen prezioak ere na-



barmen egin du gora, izan ere, etxebizitza berri bat erosi nahi duenak, ahal duen garestien saldu behar baitu bere etxea. Honela, erdiguneko etxe zaharren metro karratuak 3.000 euro inguru balio ditu. Bestalde, etxebizitzaren salneurriez gain, lokalak eta garajeen prezioak ere gora egin du azken urteotan.

## [ ZENBAKIA ]

# 5

2004an jaiotako umeen artean, bost neskari Irati izena ipini zioten. Beste lau neskari Nora eta lau mutili Unax. Azkenik hiru mutili Iker izena ipini zioten. Guztira 93 ume jaio ziren 2004. urtean. Horietatik 53 neskak eta 40 mutilak izan ziren. Azken urteotan jaiotzen bilakaera goranzkoa dela dirudi.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Elgoibar eta Eibarren artean beti egon dira tira birak. "Yuyu" bezala ezagutzen ditugu eibartarrak, eta gu "tozinoak" gara beraiantzat. Txerri batek dauka horren errua: Elgoibartarrek gose denboran txerri baten truke San Andres Santua eman omen zioten Eibarri. Hala ere, badira Eibar taldea animatzen dutenak elgoibarren. Balkoi honetan aurkitu dugu Eibar Futbol Taldearen bandera. Oso denboraldi ona egiten ari dira armeroak, eta suerte pixkatekin datorren urtean lehenengo mailan egon daitezke.



## Gaz-T eta Atxutxiamaikak eskaintza zabala prestatu dute Aste Santurako



**A**txutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldeek haurrentzako eskaintza zabala prestatu dute Aste Santurako. Ekitaldi hauek, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzako izango dira.

### Mota guztietako ekintzak

Etoko txikienentzat Udaleku Irekiak izango dira martxoaren 29tik apirilaren 1era. Ekitaldi hauek Herri Eskolan burutuko dira goizeko 10:00etatik 13:00etara, eta prezioa 25 eurokoa da.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoentzat tailerrak eta Bilboko Itsas

museora irteera antolatuta dute. Honen prezioa 12 eurokoa da. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat, berriz, Udaleku Itxiak egingo dira Aubixan, martxoaren 29tik apirilaren 2ra. Honen prezioa 65 eurokoa da. Azkenik, DBHko ikasleentzat karting irteera antolatuta dute. Martxoaren 30ean izango da, eta 15 euro balio ditu.

Ekitaldi hauetan parte hartu nahi dutenek, martxoaren 16ra arte daukate izena emateko aukera. Interesatuak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen jaso dezakete informazio gehiago, edo 943 74 16 26 (Aiora) telefonora deituz.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Ramon Maiztegi hil da

Martxoaren 7an, 83 urte zituela hil zen Ramon Maiztegi. Euskaltzalea, kirolaria eta herrigintzan ere aritua zen Maiztegi. Besteak beste, C.D.Elgoibar futbol taldean atezain izan zen tarteka eta zuzendaritzan ere hartu zuen parte. Gure Bide elkarteko zuzendaritzako kide izateaz gain, lehendakari lanak ere egin zituen. Gure Bide egindako lanaren errekonozimendu bezala Urrezko Domina eman zioten. Horrez gain, Odol emaileen elkarteko bazkide, ahal izan zuen bitartean, emaile izan zen Ramon.



### Fleuryko espetxera martxa

Datorren martxoaren 19an, martxa nazionala egingo da Fleuryko espetxera, euskal preso politikoek beraien Euskal Herriatzea aldarrikatuz burutzen ari diren borrokaldian elkartasuna adierazteko. Ostiral arratsaldean, hilak 18, aterako da autobusa Elgoibartik. Interesatuak Txuri Beltz tabeman eman dezakete izena.

### Trinitateetako IV. azoka

Datorren maiatzaren 21ean Trinitateetako IV. azoka berezia ospatuko da Debemenek eta Elgoibarko Udalak antolatuturik. Azoka honen helburua Elgoibarko baserrietan ekoizten diren produktuak erakutsi eta saltzea izango da. Azokan parte hartzea nahi duten baserriarrek Debemen elkartearen eman beharko dute izena (943 744067) martxoaren 23a baino lehen.

## Elgoibarko emakumeen lanak ikusgai Kultur Etxean



Haizea Emakume Taldeak antolatuta, "Elgoibarko emakumeak eta haien artea" erakusketa inauguratu zen joan zen martxoaren 3an, eta datorren martxoaren 14ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. Hainbat emakume elgoibartarrek eginiko lanak erakusketa da, eta oso arlo desberdinetako lanak ikus daitezke: Besteak beste, gantxiloa, margoak, oleoak, esmalteak, lora lehorrak...

Interesatuak, astelehenetik larunbatera bisitatu dezakete erakusketa 19:00etatik 21:00etara.

# Inkesta

Martxoaren 18an pasatuko da Korrika 14 Elgoibartik.

## Ba al daukazu Korrikan parte hartzeko asmorik?

**ARANTZA APRAIZ**

Langabetua

49 urte



“Bai, dirua biltzen ibili gara eta korrika ere egingo dugu. AEKn irakasle izandakoa naiz, eta beti hartu dut parte. Honelako ekintzarik behar ez izatea izango zen onena.”

**MIREN ARAKISTAIN**

Administraria

25 urte



“Ez. Ikusi izan dut pasatzen, eta parean tokatzen bazait aurten ere animatuko dut jendea, baina korrika ez dut egingo. Ekintza hauek egitea ondo ikusten dut.”

**JULEN KONDE**

Irakaslea

45 urte



“Korrika ez dut egingo, baina beti animatzen dut jendea. Euskararen alde honelako ekintzak egitea ondo ikusten dut. Helburu ona daukan ekintza da.”

**RAQUEL AVILA**

Ikaslea

13 urte



“Bai, beste edizio batzuetan ere egin izan dut korrika, eta ahal badut aurten ere egingo dut. Korrika egitea asko gustatzen zait, eta euskararen alde bada gehiago.”

## [ BAI ala EZ? ]

### Lagunduko al zenioke gertuko bati hiltzen?

**BAI %75**

“Argi eta garbi adieraziz gero bere nahia hori dela eta erabaki hori hartzeko gai bada, lagunduko nioke. Duintasunarekin bizi ezin edo nahi ez duenari hiltzen laguntzearen aldekoa naiz.”

**EZ %25**

“Heziketaren araberakoa da hori. Beste batek lagunduko balio ez nuke gaizki ikusiko, baina neuk egiteko gaitasunik izango nukeen ez nago ziur.”

Datorren asterako...

**Sumatu edo ikusi al duzun inoiz zure inguruan bullying edo eskola jazarpenik?**

Bidali SMS bat:

**7744 BARREN** (espazioa) erantzuna

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## 73 ikasle berrik eman dute izena Elgoibarko ikastetxeetan

**A**urrematrikulazio kanpaina otsailaren 25ean bukatu zen Elgoibarko hiru ikastetxeetan, eta momentuz, 73 ikasle berrik eman dute izena datorren ikasturterako. Hala ere, hauek ez dira datu definitiboak izango, hemendik irailera bitartean aldaketak egon baitaitezke. Iaz, 1.182 ikasle egon ziren matrikulatuta Elgoibarko ikastetxeetan, eta datorren ikasturterako 1.255 ikasle izango dira guxtienez.

### Pilarren ez da ikaslerik matrikulatu

Pilar Ikastetxean ez da datorren urterako ikasle berrik matrikulatu.

Ikastetxea ixtear egon zen iaz, eta egoerak hobera egin duen arren, momentuz ez du inork datorren ikasturterako izenik eman.

Herri Eskolan 35 ikasle berrik eman dute izena. Bi urteko umeak izan dira gehienak, guztira 29 ikasle. 3 urtekoen mailan 5 matrikulazio berri izan dira, eta 4 urtekoetan ikasle berri batek eman du izena.

Elgoibar Ikastola izan da matrikulazio gehien izan dituen ikastetxea, guztira 38. Bi urtekoen mailan 33 ikasle berri matrikulatu dira, 3 urtekoen mailan 4, eta 5 urtekoen mailan ikasle berri bat.



### IMHk Metalmekanika proiektua aurkeztu zuen Costa Rican

"Metalmekanikan Garapen Teknologikorako Zentruaren bidez kotasuna" izeneko proiektua aurkeztu zuen IMHk Costa Rican. Costa Ricako Zientzia eta Teknologiako Ministerioa eta Industria Ganberaren eskutik herrialde honetako aurre azterketa egin zen urtarilean. IMHko adituek 20 bat erakunde bisitatu zituzten egoera aurrez aurre ezagutu eta datuak jasotzeko. Proiektu honen helburua Ertamerikako herrialdeetako ikastetxe guztientzat eredu izatea da.

### [ IRTEERAK ]



### Herri Eskolakoak Arraten izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Arratera egin zuten irteera ikasle, guraso eta irakasleek, guztira 23 lagun. Eguraldi txarra egin zien arren, giro onean pasatu zuten eguna. Argazkia, Kalamua mendiaren lepoan atera zuten. Hurrengo irteera martxoaren 13an egingo dute Arrasatera, Deba Bailarako Ibilaldi Neurtura. Autobusa goizeko 8:00etan aterako da Plaza Handitik.

### [ IKAS KONTUAK ]

#### Pilar Ikastetxeko Batzar Orokorra

Errezabal Guraso eta Ikasle Elkarteak 2004ko diru kontuen azalpena egin zuen Pilar Ikastetxearen Batzar Orokorrean, Juan Manuel Konde presidentek gidatuta. Bertan azaldu zuten, zuzendaritza taldeak duela bederatzita hilabete ezarritako helburu guztiak bete dira. Ikastetxeari dagokionez, egoeraren normaltasuna eta hezkuntza maila altua azpimarratu zituzten. Nekane Aranburu zuzendariak azaldu zuenez, Pilar Ikastetxeko ikasleen emaitzak oso onak izan ziren PISA ikerketako frogetan, Euskadi, Espainia eta Europako batz bestekoa gaindituz. Azkenik, ikastetxeko guraso, ikasle eta irakasleen artean dagoen giro bikaina azpimarratu zuten.



## 2005. URTEKO AURREKONTUAK ONARTU DIRA

### 3.705.550 euroko aurrekontua izango du Mendaroko Udalak

**O**tsailaren 28an ospatu zen Udal Plenoan onartu zen 2005. urterako aurrekontua. Guztira 3.705.550 euroko aurrekontua izango du Mendaroko Udalak aurtengo kanpainan. Aurrekontu hauek MTI taldearen aldeko 6 boto, eta EAJren kontrako hiru botorekin onartu ziren.

#### 1.311.000 euro inbertsioetarako

Mendaroko Udalak 1.311.000 euro erabiliko ditu inbertsioetarako. Hauen artean proiekturik garrantzitsuenetarikoa Gazte Lekua da. Proiektu honek 820.000

euroko gastua izango du. Foru Aldundiak 480.000 euroko diru laguntza emango dio Mendaroko Udalari.

Bestalde, 140.000 euro erabiliko dira nekazal arloan hobekuntzak egiteko. Besteak beste, baserri bide batzuk konpondu, baserrietarako seinalizazioak jarri, eta Etxabe Mendi zonaldeko baserrietarako ur zerbitzuaren proiektua abian ipiniko dira.

Honetaz gain, Herriko Enparantzako argiztapena hobetzea aurikusten da, eta Udaletxetik Garagartzara dagoen aldapan eskailerak egingo dira.



#### Korrika 14

Datorren martxoaren 18an iritsiko da Korrika 14 Mendarora. Lan-Bi parean egingo zaio ongi etorria, eta gero, lau kilometro korrika eginez Debaruntz abiatuko da.

Lekukoa eramango dutenak ondokoak dira: Mendaroko AEK-ko ikasleak, Ikastola, Arno guraso elkarteak, Ospitaleko langileak eta, azkenik, In Leike Kultur eta Aisialdi taldeak eramango du lekukoa Sasiolako bidegurutzeraino. Era berean, Mendaroko zenbait denda eta baternatan Korrikaren aldeko itsulapikoak egongo dira "Euro bat Korrikaren alde" lelopean.

#### In Leikerekin sagardotegira

"In Leike"-k mendia eta parranda uzartuko ditu bere hurrengo irteeran. Martxoaren 19an, Adarra mendira joateko irteera antolatuta dute, eta ondoren, bazkaria egingo dute sagardotegian.

Autobusa goizeko 8:30ean aterako da estaziotik. Irteeraren prezioa 30 eurokoa da, ikasle eta langabetuentzat 25 euro. Interesatuak martxoaren 13a baino lehen sartu beharko dute dirua In Leike taldeak Kutxan daukan kontuan.

### Mendaroko Mediku-Kontsulta handitzen ari dira




Goñati frontoiko eraikuntzan dagoen Mediku-Kontsultan obrak egiten ari dira, medikuntza zerbitzua hobetzeko asmoz. Gaur egun, espazio arazo handia dauka lokal honek, eta obra hauen helburua lokala egokitu eta igogailua jartzea da.

Honetaz gain, Mendaron gero eta ume gehiago jaiotzen denez, pediatria zerbitzua eskatu zaio Osakidetzari, eta badirudi, obrak amaitzen direnean martxan jarriko dutela. Itxaron gelak, erizain gela, eta komunak ere jarriko dira.



#### Jose Balentin Arriola hil da

100 urte zituela hil zen martxoaren 2an Jose Balentin Arriola mendararra. Martxoaren 14an 101 urte beteko zituen. Jose Balentin Azpilgoeta auzoko alkatea izan zen. Mendaron oso ezaguna izan zen Jose Balentin. Tabernari, ikatz saltzaile, eta ile-apaintzaile lanetan aritu zen, besteak beste, bere bizitzan. Bitxikeria modura esan dezakegu 91 urtera arte izan zuela gida-baimena.





## LUIS SALEGI

San Jose ikastolako zuzendaria

### «Datorren ikasturtean 25 ikasle berri izango ditugu»

*Luis Salegi mendarorria San Jose Ikastolako irakaslea da 1985. urtetik eta azken lau urteetan zuzendaria ere bada, euskara irakaslea izateaz gain. Ikastetxeak azken urteetan izan duen bilakaeraz eta etorkizunerako asmo eta beharrez berba egin dugu Luisekin.*

#### • Zenbat ikasle eta irakasle daude San Jose Ikastolan?

140 ikasle ditugu Haur Hezkuntzako (2-5 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) ikasleak batuz gero. Haur Hezkuntzan 80 ikasle inguru eta 60 ikasle Lehen Hezkuntzan. Guztira 17 irakasle gaude eta beste hiru irakasle laguntzaile.

#### • Ikasle kopuruari dagokionez, zer bilakaera izan du azken urteotan?

Ikasle kopuruaren hazkundea nabaritu dugu, batez ere Haur Hezkuntzan. Datorren urtean 160 ikasle izango ditugu, 25 matrikulazio berri baititugu. Lehen Hezkuntzan, berriz, azken urtean zeuden 5 ikaslek bakarrik lagako dute ikastetxea.

#### • Inoiz izan duzuen ikasle kopuru altuena al da?

85ean, ikasle kopurua altua zen. 90eko hamarkada hasieran krisialdi ekonomikoarekin jaiotze tasaren beherakada iritsi zen. 1.700 biztanletik 1.300ra pasa zen. Hamarkadaren bukaeran, berriz, jaiotze tasaren gorakada nabaritu zen. Fisikoki aldaketa izugarria nabaritu da: etxebizitza berriak, azpiegiturak, industrialdeak, e.a. Aitzitik, herria asko hasi dela iruditu arren, 400-500 biztanle gehiago bakarrik gara. Baliteke jendea enpadronatu gabe egotea. Dena dela, Mendaro zaharkitua geratzen ari zen eta belaualdi gazteen etorrerak bizitasuna eman dio herriari.

#### • Mendaro hasiz doan herria izanik, aurreikusten al duzue ikastetxea handitzeko beharrik?

94an hasi ginen eraikuntza berrian klaseak ematen eta 95ean inauguratu genuen. Aurrez herrian sakabanatuta zeuden gelak. Garai hartan hezkuntza sistema zaharra (OHO) zegoen indarrean eta ikastetxea haren arabera prestatu genuen. Orain daukagun eskaerarekin txiki geratu zaigu ikastetxea, batipat Haur Hezkuntzako ikasleak jasotzeko.

#### • Zein dira une honetan dituzuen beharrik handienak?

Espazio falta daukagu. Haur Hezkuntzarako gela berri bat behar dugu gutxienez. Txikienez zaku psikomotrizitate gela bat ere faltan botatzen dugu. Bestalde, jolas leku edo beste ekintzetarako leku estalia behar dugu.

#### • Zein da ikasleen jatorria?

Lehen Hezkuntzan, Mendaron bizi zirenen seme-alabak daude. Haur Hezkuntzan, agian, Mendaron jaiotakoak dira baina gurasoak inguruko herrietatik etortakoak. Tartean etorkinak ere badaude. Azken finean San Jose ikastola Mendaron getatzen ari denaren ispilua da. Euskara mailan, adibidez, lehen euskal giroa sendotuta zegoen, baina ikasle berrien etorrerarekin euskararen sendotasuna kolokan jarri da eta planteamendu berriak egin behar izan ditugu.




«Eraikuntza txiki geratu da, espazioa falta zaigu»



# GAZTIA NAIZ

Gazte tertulia...

## ETXEBIZITZA



AZKEN BOST URTEOTAN ETXEBIZITZEN PREZIOA %78 GARESTITU DA ELGOIBARREN, IA BIKOIZTU EGIN DA ETXEBIZITZEN SALNEURRIA 2000. URTETIK GAUR EGUNERA. SOLDATEK ORDEA, EZ DUTE IGOERA HANDIEGIRIK IZAN, BERAZ, GERO ETA ZAILAGOA DA GAZTEENTZAT ETXEBIZITZA BAT EROSTEA. ETXEBIZITZA GUZTION ESKUBIDEA DELA JARTZEN DU KONSTITUZIOAN, BAINA GAUR EGUN, GUTXI DIRA ETXEBIZITZA BAT EROSTeko AUKERA DUTENAK. HIRU GAZTE EKARRI DITUGU GURE ARTERA BERAIEI ENGOERA ZEIN DEN EZAGUTZEKO. OIHANA TARRAGUAL (ALOKAIRUAN BIZI DA BIKOTEAREKIN), ZIGOR CORNEJO (ETXEA EROSI BERRI DU) ETA AITOR JUARISTI (GURASOEKIN BIZI DA).

adina ere aurrera doa, 30 urte daukat, eta aurrezki planean sartuta nagoenez, erosi egin behar nuen.

**Aitor:** Elgoibarren gazteek daukaten aukera bakarra 30 urterako hipoteka batean sartzea da. Ni orain hasi naiz etxetik ateratzeko beharra sentitzen, baina ez daukat etxe bat erosteko aukerarik. Lehenago joango nintzateke lagunen batekin alokairuan.

da. Alokairuan biziko naiz urte batzutan, edo beste toki baten erosiko dut. Nafarroan metro karratua askoz merkeago dago. Hara joatea beste irtenbide bat izan daiteke.

**Gustuko etxea, ala ekonomikoki ahal zenuena erosi duzu?**

**Zigor:** Biak izan ditut kontuan. Toki lasaia nahi nuen, eta Altzola oso lasaia da. 70 metro karratuko etxea erosi dut, niretzako nahikoa da, eta prezio aldetik ere, nahiko ondo. Bigarren eskukoak ere oso garesti eta egoera txarrean daude: obra egin, eskriturak... Berri bat erostea hobea da.

**Zergatik alokairuan?**

**Oihana:** Nire bikoteak eta nik elkarrekin bizitzea nahi genuen. Oraintxe zen momentua, ez genuen gehiago itxaron nahi. Hasieran etxebizitza bat erostea zen gure asmoa, baina ikusi genituen etxebizitzaren artean, ez genuen gure gustukorik aurkitu. Mendaro eta Elgoibarren aritu ginen begira, eta oso garestiak ziren denak. Bigarren eskukoak merkeagoak ziren, baina sekulako obra behar zuten. Nik ez dut luxu bat eskatzen, baina... Momentuz etxea erostearen ideia alde batera utzi dugu.

**Asko kostatu zitzaizuen alokairuan etxebizitza duin bat aurkitzea?**

**Oihana:** Ez da erraza, alokairuan ez dago aukera askorik, eta garestiak dira. 70.000 pezeta eskatzen zizkiguten batzutan, eta ez ziren sekulako etxeak.

**“Jakin banu, duela 10 urte erosiko nukeen etxea”**

ZIGOR

**Etxebizitzak %78 garestitu dira bost urtetan. Zer duzue esateko?**

**Oihana:** Barbaridade bat da. Donostian alokairuan egon nintzanean, proportzioan merkeago ateratzen zitzaidan. Elgoibarko egoera izugarria da.

**Zigor:** Gehiegizkoa da. Turismoa dagoen hiri handi baten prezioak hainbeste igotzea ulergarriagoa da, baina Elgoibar bezalako herri baten, ez dut ulertzen. Soldatak ez dira proportzio berean igo.

**Zein da gazteen etorkizuna?**

**Zigor:** Nik Altzolan erosi dut etxea, prezio aldetik kriston alde dagoelako. Metro karratu berdinak dituen etxeak, zazpi milioiko alde zeukan. Gainera nire

**Noiz arte ikusten duzu zure burua gurasoen etxean?**

**Aitor:** Momentuz ikasten ari naiz, eta ez daukat hipoteka bati lotuta bizitzeko asmorik. Nire bizitzan gauza asko daukat egiteko oraindik. Ikasketak aurten bukatuko ditut seguruenik, eta gero, ahal izanez gero, proiektua egiten dudan bitartean alokairuan bizitzea gustatuko litzaidake. Proiektua bukatu ostean, urtebete atzerria joatea nahiko nuke, lan egin eta bizimodua zer den ikasteko.

**Eta gero, berriz gurasoen etxera?**

**Aitor:** Ez nuke nahi! Bakarrik bizi ostean gurasoen etxera bueltatzea oso gogorra



# BARREN

## ESKUBIDEA ALA LUXUA?

Azkenean, lagun baten bitartez aurkitu genuen etxe hau. Oso gustura gaude.

**Epe luzerako, ala denboraldi baterako alokairuan?**

**Oihana:** Irailean jarri ginen alokairuan, eta momentuz urtebeterako kontratua daukagu. Gure nahia, Mendaron etxebizitza bat erostea da. Alokairua denboraldi baterako egoki ikusten dut, baina epe luzerako dirua alperrik botatzea dela iruditzen zait.

**Aitor:** Jabetza garrantzia handia ematen zaio hemen. Bizitzeko leku bat edukitzea da garrantzitsuena. Pentsakera aldatu beharko g e n u k e . Atzerrian alokairuan bizi dira, gaur

Errentan



2005-3-11

hemen eta bihar han. Bizi osorako gastua da, ez inbertsioa, baina denboraldi baterako ondo dago.

**Etxebizitza bakarrik erostea posible al da gaur egun?**

**Oihana:** Zaila da. Etxe guztiak oso handiak dira. Apartamentuak gutxi daude, eta gainera garesti. Proporzioan etxe handiago erostea hobeto ateratzen da. Gizarte honek bikotea edukitzera derrigortzen zaitu. Hipoteka bat emateko dena begiratzen dute.

**Zigor:** Nik erosi dut! momentuz ez daukat bikoterik, eta edukitzeko asmorik ere ez! Intimidadea nahi nuen, eta hori ordaindu egin behar da. Babes Ofizialeko Etxeen zain ezin zara egon.

**Egoera honek izango al du bueltarik?**

**Oihana:** Zaila ikusten dut. Etxeak saltzen diren bitartean, egoerak berdin jarraituko du. Independizatzea denon eskubidea da, eta azken urteotan luxu bihurtu da.

**Zigor:** Ez dut uste, urtefik urtera prezioak goraka doaz. Jendeak gehiago garestituko diren beldurra du, eta sartu egiten da. Egungo egoera honelakoa izango zela jakingo banu, lanean hasi nintzenezan erosiko nukeen etxea.

**Aitor:** Aspaldiko kontua da, eta egoerak berdin edo okerrago jarraitzen du. Engelsek idatzi zuen 1870. urtean arazo honi buruzko liburu bat. Hainbeste urteren ostean, begira nola gauden! Batzuk aberasten diren bitartean hau ez da aldatuko.

**“Bakarrik etxebizitza erostea ezinezkoa da”**

OIHANA



**“Gobernuak laguntzak eman beharko lituzke”**

AITOR

**Zein izan daiteke irtenbidea?**

**Oihana:** Babes Ofizialeko Etxebizitza gehiago, etxe txikiagoak eta alokairua gehiago bultzatzea, prezioak jaitsiz.

**Aitor:** Gobernuak laguntzak eman beharko lituzke, atzerrian bezala. Edo okupazioa. Etxe huts asko dago. Katalunian eta atzerrian okupatu egiten dira. Hemen eskandalua izango litzateke.

**Zigor:** Bost urtetan inork etxerik ez erostea, konstrukturakoak beldurtu eta prezioak jaisteko. Oso zaila da, baina hori egin beharko genuke!

**IMANOL UBEDA** BIDE ERTZEAN TALDEKO KANTARIA

## «Gure hitzetan gure zalantzak eta bizipozez hitz egiten dugu»



*Bide Ertzean 1998an sortu zen Deabruak Teilatueta taldearen hondarretatik eta lau disko kaleratu ditu jada: Zure Minari (1999), Maite out (2002), Grisa (2000) eta Esan bare (2004). Horiez gain, maxi (1998) bat ere kaleratu zuen. Azken lana ekarriko dute Elgoibarrera, Korrika Kulturalaren programazioaren bamean. Lan honekin "iturri zaharrera" itzuli direla diote. Gaur, martxoak 11, Herriko Antzokian izango ditugu gaueko 10:15etan hasita. Gu Imanol Ubedarekin izan gara, abeslariarekin.*

🦋 **Bide Ertzean taldearen ibilbidea asko aldatu da. Lehen Deabruak Teilatueta osatu zenuten, doinue-tan ere nabari da aldea...**

Hainbat arazo direla-eta, ikasketak etab. artean, etenaldi bat egin behar izan genuen Deabruak Teilatueta taldearen ibilbidean. Bateria jotzaileak atzerrira joan behar izan zuen eta elkarrekin egon ezin genuenez taldearen jarduna etetea erabaki genuen. Orduan, 1998an, Bide Ertzean taldea jarri genuen martxan anaiak, Karlosek eta hirurok. Ondoren Fran Iturbe eta Labrit ere etorri ziren. Labrit jada ez dago gurekin, baina azken bi diskoetan Joserra Senperena gurekin ari da. Orduetik Bide Ertzean taldearen ibilbidea nahiko oparoa izan da eta horri heldu diogu. Lau disko eta maxi bat grabatu ditugu guztira.

🦋 **Nortzuk osatzen duzue taldea?**

Bost lagunek hartzen dugu parte: Fran gitarista da, Joxerra pianista, Karlos bateria jotzailea, Joni baxu jotzailea eta ni, berriz, kantari aritzen naiz.

🦋 **Zein estilo lantzen duzue?**

Komunikabideek pop musika egiten dugula esan dute hainbatetan eta hala izango da, baina ez diogu horri berebiziko garrantzia ematen. Entzuten dugun musika ere estilo horretakoa da

gutxi gorabehera, nahiz eta denetarik entzun.

🦋 **Kantuetako hitzak idazterakoan zein da zuen inspirazio iturria? Zeri erreparatzen diozue?**

Gure kezkek eta zalantzak islatzen saiatzen gara, hau da, bizitzakoak, gizarteari buruzkoak, gure herriaren ingurukoak... denak sartzen dira. Kezkek, zalantzak baina baita bizipozak ere.

🦋 **Deabruak Teilatueta izan zen Elgoibarren, baina Bide Ertzean taldeak lehenengoz joko du Elgoibarren. Nolako ikuskizuna aurkeztuko duzue Elgoibarren?**

Azken diskoko kantak joko ditugu batez ere, baina amaiera partean aurreko lanetako kantak, betikoak, joko ditugu.

🦋 **Korrikaren harira nolako konpromisoa duzue euskararekin?**

Korrika beti da berezia, ez dakit ondo nola azaldu baina badu zerbait berezi egiten duena. Herriz herri igarotzen da eta joan doa, etortzen den bezala. Hari horretatik, taldeak euskararekin duen konpromisoa naturala da oso. Guk euskaraz egiten dugu, errusiarrek errusieraz egiten duten bezala eta arrazoi berberetatik. Ez da aurrez erabakitako ezer, euskaraz egiten dugu, berezkoa dugulako.

AINHOA LENDINEZ

«Euskaraz egiten dugu berezkoa dugulako»

## INSTRUMENTU TALDEEN IV. LEHIAKETA

### 14 herritako 170 musikarik parte hartuko dute Elgoibarko Herria Lehiaketan

**I**nazio Bereziartua Musika Eskolak laugarren urtez jarraian antolatu duen Elgoibarko Herria Instrumentu Taldeen Lehiaketa zapatu honetan, martxoaren 12an, izango da Musika Eskolako auditorioan. Guztira, 14 herri ezberdinetatik etorritako 170 musikari gaztetxok parte hartuko dute lehiaketan, 16 Musika Eskola ordezkatzuz. Honako hauek dira epaimahaia osatuko duten kideak: Jon Lizaso (tronpa), Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioko irakaslea eta "Quinteto Pablo Sorozabal" taldeko partaidea; Patricio Goialde (gitarra elektrikoa, harmonia), musikaren historiako irakaslea, gaur egun Musikeneko irakaslea da Jazz Musikaren Historia irakasgaian; eta Mari Jose Cano (pianoa), Pasaia Musikaleko irakaslea eta Diario Vascoko musika kritikaria. Oinarrizko mailako lehen taldeko partaideak goizeko 10:30ean hasiko dira eta bigarren taldekoak 12:00etan. Maila ertaineko musikariak, berriz, 17:00etan



hasiko dira. Sari banaketa arratsaldeko 19:00etan izango da. Sari berezi bat emango dute aurten lehiaketako bakarlari onenarentzat.

### Korrika 14 martxoaren 18an

*Euskal Herria euskalduntzen; ni ere bai!* lelopean abiatu zen Orreagatik martxoaren 10ean Korrikaren 14. edizioa.

Elgoibarrera datorren ostiralean, martxoak 18, iritsiko da eguerdiko 14:00etan, eta Sigmako zubian egingo zaio ongietorria. Santa Ana, Plaza Haundia, San Bartolome, Errosario, Plaza Handia, San Bartolome, San Frantzisko, Maala, Pedro Muguruza, San Pedroko etxeak, San Antolin eta Altzola zeharkatu ostean, Mendarorantz abiatuko da. Aurrez, 12:00etan herriko ikastetxeetako umeek Korrika Txikia egingo dute.

Kilometroa erosi duten elgoibartarrak honakoak dira: Ezker Batua-Berdeak, Kimetz-Etxerat, Udal Euskara Batzordea, Elgoibarko Izarra, Morkaiko, Errotatxo, Sanlo eskubaloi taldea, Ikastola, Gazte Asanblada, Haritz, Haizea, Txankakua, IMH, Herri Eskola, Altzola auzoa, Euskadiko Kutxa eta Etxepe enpresa.

Bestalde, kilometroa erosi nahi duten pertsona guztiak ere jasoko dute zenbakidun petoa AEKn.



### ESKERTZA

2005eko martxoaren 7an, 83 urte zituela hil zen *Ramon Maiztegi Iriarteren* etxekoek bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



*Ramon Maiztegi Iriarte*

*Ramon,  
beti izango zaitugu  
bihotzean.*

Gure Bide Elkarteko Txirrindulari Batzordea





# 42URTE

1963 – 2005

gure herria euskalduntzeko ahaleaginean

Bide luzea egin dugu,  
baina ez dugu helmugako  
pankartarik ikusten.  
Segitzera goaz.  
Gurekin etorri nahi?

Bazkide izan nahi baduzu:

**943 74 16 26**

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)



ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkartearen aldeko  
**BAZKIDE KANPAINA**



## XVI. LILATOIA

### 24 elgoibartar izan ziren korrika Lilatoian



**J**oan zen domekan ospatu zen Lilatoiak partaidetza errekorra hautsi zuen. 553 emakume elkartu ziren Donostian emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna aldarrikatu eta emakume izatearen harrotasuna korrika ospatzeko. Tarteetan 24 emakume elgoibartar izan ziren eta ez ziren esku hutsik etxera itzuli, talde jendetsua

osatzeagatik eta urte askoan hutsik egin gabe parte hartzeagatik domina bana eta Kontxako barandilla irudikatzen duen oroigarria eskuratu zituzten. Bitxikeria gisa, Zapatero, Espainiako presidentea, zetorrela-eta, segurtasun arazoetatik lasterketa bertan behera lagatzekotan egon ziren antolatzaileak, baina ibilbidea aldatzearekin nahikoa izan zen.



### ANTT Sanlo eskubaloit taldeak mailaz igotzeko aukera du

Senior mailako ANTT Sanlo eskubaloit taldeak mailaz igotzeko aukera izango du domekan, hilaren 13an, Olaizaga kiroldegian (10:30). Aloña Mendi taldearen aurka irabaziz gero, mailaz igotzea lortuko dute Xabier Zelaia entrenatutako mutilek. Hortaz, zaletuen animuak inoiz baino beharrezkoagoak izango dituztela adierazi

digute. Denboraldi bikaina burutzen ari dira. Momentuz 12 partida irabazi, 2 galdu eta bat berdindu dituzte. Bestalde, senior mailako Sanlo nesken taldeak ere partida garrantzitsua jokatu du zapatuan Olaizaga kiroldegian (17:00). La Salle taldeari irabaziz gero lehen postua eskuratuko lukete.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Amorebieta 2 - Haundi 1 (3. maila)  
Elgoibar 4 - Olarizu 0 (1. erreg.)  
Urola 1 - Elgoibar 2 (Kad.)  
Elgoibar 0 - Real Union 3 (Inf. A)  
Urki 0 - Elgoibar 2 (Nesk.)

### ARETO FUTBOLA

Bilbao GSI 5 - Kenci Elg. 3 (Nazional B)  
Toletxe Kafetegia 5 - Aldapeta 4 (Jub.)

### PILOTA

#### Udaberi Txapelketa

Andatzpe 20 - Lagunak 22 (Nag. 1. maila)

### ESKUBALOIA

Pulpo 9 - Sanlo 14 (Inf. nes.)  
Leizaran 18 - Umobitza Sanlo 11 (Inf. mut.)  
Pagoaga Sanlo 14 - Basauri 13 (Kad. nes.)  
Cometel Sanlo 16 - Basauri 14 (Jub. nes.)  
Donibane 14 - Tecnomeca Sanlo 25 (Kad. m.)  
Pneumax Sanlo 22 - Gatz Museoa 21 (Jub. mut.)  
Boom 23 - Sanlo 25 (Sen. nesk.)  
Arrasate 20 - ANTT Sanlo 21 (Sen. mut.)  
Zarautz 22 - Tecnifuelle 24 (Sen. mut.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA, Mintxetan

#### Zapatua, 12

12:30 Elgoibar - Eibartarrak (Kad.)  
16:30 Haundi - Beasain (Inf. A)  
18:30 Elgoibar - Segura (1. erreg.)

#### Domekia, 6

10:30 Elgoibar - Almen (Neskak F-8)  
12:00 Elgoibar - Groseko (Neskak)

### ESKU PILOTA, Ikastolan

#### Euskal Herriko Liga

#### Barixakua, 11

21:00 Lagunak - Hernani (Jub. nesk. palaz.)

#### Udaberi Txapelketa

#### Barixakua, 11

21:45 Lagunak - Tartaloetxe (Kad. 2. maila)  
22:30 Lagunak - Aretxabaleta (Nag. 1. maila)

### ARETO FUTBOLA, Kiroldegian

#### Barixakua, 11

22:00 Lanbroa Elg. - Eskolapioak (1. maila)

#### Zapatua, 12

16:00 Kenci Elg. - Inter Sofa (Nazional B.)

### ESKUBALOIA, Kiroldegian

#### Zapatua, 12

15:00 Umobitza Sanlo - Pulpo (Inf. mut.)  
17:30 Sanlo - La Salle (Sen. nesk.)

#### Domekia, 13

9:00 ANTT Sanlo - Aloña Mendi (Sen. mut.)  
10:30 ANTT Sanlo - Aloña Mendi (Sen. mut.)

## OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Zumaiako enpresak **arotza** behar du. **Eref. 162005002029**
- Bergarako enpresak **CNC tomurako langilea** behar du. **Eref. 162005002049**
- Bergarako enpresak **turismo informaziorako teknikaria** behar du. **Eref. 162005002096**
- Eibarko enpresak **komertziala** behar du. **Eref. 162005002103**
- Elgoibarko enpresak **ileapaintzaila** behar du. **Eref. 162005002041**
- Mutrikoko enpresak **soroslea** behar du. **Eref. 162005002050**
- Debako enpresak **fresatzeko makinarako langilea** behar du. **Eref. 162005002027**
- Azpeitiko enpresak **CNC tomurako langilea** behar du. **Eref. 162005001788**
- Oñatiko enpresak **sukaldaria** behar du. **Eref. 162005001632**
- Bergarako enpresak **frantses irakaslea** behar du. **Eref. 162005001578**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## [ LANA ]

### ESKAERA

- † Emakumea nagusiak zaindu, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 662 01 66 30**
- † Soldadorea eta 2. mailako ofiziala lanerako prest. Berehala hasteko moduan. **☎ 661 22 51 49**
- † Emakumea nagusiak zaindu (arratsalde edo gauetz) edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 943 75 22 52 (21:00-22:00)**
- † Bi emakume garbiketa lanak egiteko prest. Elkarteak, portalak, tabernak, etxeak... **☎ 943 03 35 43/646 91 70 48**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 660 76 30 45**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 606 612 834**
- † Oporretako, ospakizunetako edota edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. **☎ 617 24 26 60 (Nere)**
- † Emakumea lanerako prest: umeak, nagusiak zaindu, kamarera... **☎ 678 84 05 31**
- † Gizonezkoa lanerako prest. Igeltsero, lorazain, kamarero... **☎ 678 84 05 31**
- † Emakumea nagusiak, haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 661 175 180**

### ESKAINNTZA

- † Esperientziadun kamareroa behar da, neska edo mutila. **☎ 615 72 34 80**
- † Ibilgailuak garbitzeko neska edo mutila behar da. Gida baimena ezinbestekoa. **☎ 902 10 32 87**
- † Neska euskalduna eta esperientziaduna behar da altzari dendan lan egiteko. **☎ 943 70 18 85 (Amaia)**
- † Donostiako medikuntza estetika enpresa batek erizaina behar du. Gida baimenarekin. **☎ 902 181 969**
- † Pertsona bat behar da Elgoibarren eta Mendaron buzonea egiteko. **☎ 686 04 53 21**

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- † Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua. **☎ 677 780 680**
- † Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 636 22 31 42**
- † Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 636 22 31 42**
- † Etxea salgai Ubitarten. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berritua, altzari eta ganbararekin. **☎ 652 71 67 24**
- † Etxe berria salgai Soroluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. **☎ 615 77 99 20**
- † Pisua salgai Artetxen (Inñiguez de Karkizano kalean). Berritua, altzariekin, dena kanpora begira. Ganbararekin. **☎ 627 94 12 61**
- † San Roken etxea salgai. 95m<sup>2</sup>, garaje plaza eta ganbara. 3 logela, sukaldea, bi komun, egongela eta bi balkoi. **☎ 656 70 29 59**
- † Pisua salgai San Bartolome kalean. Altzariekin edo altzariarik gabe. 100m<sup>2</sup>. **☎ 670 555 294**

### ALOKAIRUA

- † Peñiscolan etxea alokatzen da. Opor, asteburu, despedidak... Igerilekua, tenis pista, mini golf... **☎ 964 49 10 22**
- † Peñiscolan etxea alokatzen da. 5 logela, terraza, itsasora eta mendira begira. **☎ 964 49 10 22**
- † Apartamentua alokatzen da Saloun. Novelty eraikuntza. Ekipatua, aire egokitu, igerilekua, garajea, terraza. 24 orduko harrera. **☎ 629 98 98 99/943 81 42 38**
- † Conilen (Cadiz) apartamentua alokatzen da. Bateles hondartza ondoan. Ekipatua. **☎ 680 44 26 68**
- † Logelak alokatzen dira San Roken. Sukalde erabilpena barne. **☎ 943 74 88 53**
- † Logela alokatzen da. **☎ 943 74 18 81**

## [ LOKALAK ]

- † Sigmako poligonoan lokal industrial eta bulegoak alokatzen dira. **☎ 679 18 45 54**

## [ GARAJEAK ]

- † Garaje itxia alokatzen da San Roken. 34m<sup>2</sup>. **☎ 943 74 17 02**
- † Garaje maraduna salgai Leku Ederren. **☎ 605 77 53 15**
- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m<sup>2</sup>. **☎ 646 50 28 66 (arratsalde)**
- † Garaje itxia salgai Ermuaranbiden, 19,90m<sup>2</sup>. **☎ 943 74 28 75**

## [ SALEROSKETAK ]

- † Pentium 3 ordenagailua salgai. Egoera eta prezio onean. **☎ 658 71 08 73**
- † Citroen Xsara autoa salgai. 5 urte. **☎ 678 80 35 35/639 180 184**
- † Citroen C2 1.4i autoa salgai. Beltza. 6000 euro. **☎ 943 74 23 63**
- † Ordenagailua salgai. AMD 1000HZ, pantaila 17", eskanerra HP, inpresora HP. 4 urte, egoera oso onean. 600 euro. 150x50eko mahaia opari, gerezi eta urdin kolorekoa. **☎ 658 62 99 47**

## [ BESTERIK ]

- † Hilaren 4an bufanda, eskularri eta txapela galdu nituen. Umeenak dira, lanazkoak. **☎ 943 74 09 87**
- † San Frantzisko kalean aliantza bat topatu nuen hilaren 7an. Izena eta data jartzen ditu. **☎ 626 16 20 05**

Elgoibarko Izarra Elkarteak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean gestionatzen duten GUREAN BAI - MERKATARITZA proiektuko teknikariaren BAJA - ORDEZKOTZA BETETZEKO

## EUSKARA TEKNIKARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz).
- Euskalgintzan jarduteko iniziatiba.
- Harremanetarako dohainak.
- Elgoibarren edo inguruan bizitzea.

Baloratuko da:

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan-kontratu urtea amaitu arte

Curriculumak jasotzeko azken eguna: martxoak 18 Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)  
ELGOIBARKO IZARRA, Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR E-posta: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com



## [ZORIONAK]



† Zorionak **Ane**, bihar 9 urte egingo dituzulako. Egun ona pasa familiako guztiekin.



† Zorionak **Estibaliz**, Elgoibarko neska politenari! muxuak Eneritz, Zaira eta lagunen partez.



† Zorionak **Aner** martxoaren 8an 8 urte egin zenituelako. Aitxixa, amama eta Laidaren partez.



† Zorionak **Iban** martxoaren 13an urteak egingo dituzulako. Guraso, emazte eta Asierren partez.



† Zorionak **Nekane** hilaren 14an 6 urte egingo dituzulako. Familiakoan, Asierren eta Maialenen partez.



† Zorionak **Andrea** martxoaren 5ean 7 urte egin zenituelako. Guraso, aitxixa eta osaben partez.



† Zorionak **Iñigo** 10 urte egin dituzulako. Hamar muxu handi gure etxeko printze ederrari.



† Zorionak **Irati** martxoaren 7an zure 1. urtebetetzea izan zelako. Muxu handi bat familiakoan partez.



† Ondo pasa igandean, zure bigarren urtebetetzean. Zorionak ikastolako laguntxoan partez.



† Ondo pasa genuen zure lehen urtebetetzean ehi! Zorionak ikastolako laguntxoan partez.



† Zorionak **Leire** martxoaren 13an 7 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Josuren partez.

† Zorionak **Luis** martxoaren 13an zure eguna delako. Argazkirik gabe ere hemen zaudel Bezeroen eta protestatzailearen partez.



† Zorionak **Sara eta Asier** zuen urtebetetze egunean. Familiakoan eta bereziki, amama Joseparen partez.



† Zorionak **Carmen eta Igor!** Egun ahaztezina pasa dezazueta eta gozatu bidaiaz. Familiakoan eta koadrilakoan partez.



**Bukatu S. Coop.**  
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A  
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**



**Ezenarro Ahotzenixia**  
*Jurdan Ezenarro*

- Altzariak
- Armairuak (enpotratuak...)
- Tallak
- Erreformak
- Eskailerak
- Ateak, lehoiak
- Parket-ak, tarimak...
- Egurrezko estrukturak
- Sukaldeak

Linazasoro7, 2. (estazio parean)  
Tel.: 653 707 837 (MENDARO)  
jurdaneze@hotmail.com

**Giauto**  
GIPUZKOA AUTOAK  
Otaola Etor., 27  
943 202500 - EIBAR  
Karobi Pol., z/g  
943 88 51 50 - OLABERRIA  
clientes@giauto.es

**AUTO BERA, MERKEAGO**



Harrerarako telefonoa  
**902 345 225**

www.chevrolet.es





## [ OKINDEGIA ]



13 igandea BOLINTXO



## [ FARMAZIAK ]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
11	Yudego	Yudego	<b>IBANEZ</b>
12	Etxeberria (Santa Ana)	Zabaleta	Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
13	Zabaleta	Zabaleta	<b>FERNANDEZ</b>
14	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
15	Ibañez	Ibañez	<b>ZABALETA</b>
16	Bidasolo	Bidasolo	Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
17	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	
18	Fernandez	Fernandez	



## [ TELEFONOAK ]

OSASUNA	BESTELAKOAK
Anbulatorioa 943 03 26 10	Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Larrialdiak 943 46 11 11	Kiroldegia 943 74 44 15
Planning-a 943 74 29 50	Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85	Liburutegia 943 74 35 25
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22	Musika Eskola 943 74 21 45
Gurutze Goria 943 74 38 64	Mintxeta 943 74 43 15
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00	Parrokia 943 74 08 42
Odol Emaileak 943 74 39 36	Postetxea 943 74 15 47
	Gazte Informazioa 943 74 14 61
	KZ gunea 943 74 88 28
UDALA	ADINEKOEN ETXEAK
Euskara Zerbitzua 943 74 43 66	San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58	Zaharen Biltokia 943 74 05 26
Hirigintza 943 74 43 84	Eguneko Zentroa 943 74 45 65
Epaitegia 943 74 16 30	
Haziena 943 74 44 14	IKASTETXEAK
Mendaroko Udala 943 03 32 82	Haur Eskola 943 74 21 41
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08	HII (EPA) 943 74 08 80
Udaletxea 943 74 10 50	Herri Eskola 943 74 08 79
Udalizaingoa 943 74 13 94	LM.H. 943 74 41 32
Debemen 943 74 40 67	Institutua
GARRAIOAK	Arreiture 943 74 80 19
Eusko Trenbideak 943 74 04 42	Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
PESA (Eibar) 902 10 12 10	Ikastola 943 74 44 41
Taxi geltokia 943 74 08 98	Pilar Ikastetxea 943 74 13 31
Bizkaibus 902 222 265	



## [ AUTOBUSAK ]

### ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandek eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

### DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45

Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandek eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45

PESA: 902 10 12 10

### ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

Asteburu eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### SIGMA - ARRIAGA

Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10

Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### ARRIAGA - SIGMA

Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00

Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

### ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

### DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

### ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

### EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 11 BARIXAKUA ]

### 22:15 KONTZERTUA

Taldea: "Bide Ertzean"  
"Esan Bare" diskoaren aurkezpena  
Herriko Antzokian  
(Korrika kulturala)

## [ 12 ZAPATUA ]

### 10:00 PILOTA EGUNA

Ikastolako frontoian  
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

### 10:30 INSTRUMENTU TALDEEN IV LEHIAKETA

I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan  
Sari banaketa 19:00etan  
Antolatzailea: I. Bereziartua Musika Eskola

### 11:30 MERKADILLOARI BURUZKO HERRI GALDEKETA

Plaza Handian  
Oraindik botua eman ez dutenentzat eta baserritarrentzat  
Antolatzailea: Elgoibar Bizirik Herri Plataforma  
Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dira

# SINOPSISIAK

«Conversaciones con



## [ 13 DOMEKIA ]

### 10:00 BARRETERAPIA TAILERRA

Aubixa Baserrian  
Izena emateko edo informazio  
gehiago: 943 741715

### 10:15 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

### 12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

## [ 14 ASTELEHENA ]

19:00 ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN  
URTEKO BATZAR OROKORRA  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan

14. korrika aek



## [ 16 EGUAZTENA ]

### 18:30 HITZALDIA

Gaia: "Kideen arteko portaera  
agresiboak"  
Hizlaria: Isabel Gonzalez Acha  
(psikologoa)  
Antolatzailea: Herri Eskolako  
Kalamua Guraso Elkarte

## [ 17 EGUENA ]

### 20:00 BILERA

Deialdia norentzat: Maitzaren  
21ean Trinitate jaietako nagusien  
danborradan parte hartu nahi  
dutenak  
Lekua: Gabi jatetxean

## [ 18 BARIXAKUA ]

### 14:00 KORRIKA 14ri ONGI-ETORRIA

Harrera: Sigmako zubian.  
Antolatzailea: AEK

## ZINE KARTELDEGIA

### ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

#### «Coversaciones con mama»

12, zapatua: 19:30-22:15

13, domekia: 19:30-22:15

14, astelehena: 22:15

#### «Los Superbarbis»

13, domekia: 16:30

#### «Coffee and cigarettes» (Z.K.)

17, eguena: 22:15

### EIBAR, UNZAGA

#### «Million dolar baby»

11, barixakua: 19:30-22:15

12, zapatua: 17:00-19:30-22:30

13, domekia: 17:00-19:30-22:30,

14, astelehena: 19:30-22:15

15, martitena: 19:30-22:15

16, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, RIALTO

#### «Los padres de el»

11, barixakua: 19:30-22:15

12, zapatua: 17:00-19:30-22:30

13, domekia: 17:00-19:30-22:30,

14, astelehena: 19:30-22:15

15, martitena: 19:30-22:15

16, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen  
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

mama»

«Coffee and cigarettes» (Z.K.)

Zuzendaria: Santiago Carlos Oves.

Antzezleak: China Zorrilla, Eduardo Blanco.

Amak 82 urte ditu eta Jaimek, semeak, 50 urte. Biak mundu ezberdinetan bizi dira. Emaztea, bi seme, etxe ederra eta bi auto ditu Jaimek. Amak, berriz, bakarrik bizi den arren, badaki bere buruaz arduratzen eta zahartzaroa bizitza guztian erakutsi duen duintasun berberarekin bizi du. Jaime lanetik kaleratuko dute eta zeraman bizimoduari uko egin beharko dio. Amaren etxea bere izenean dagoenez, saldu behar duela esatera joango da amarengana, baina ezusteko batekin egingo du topo.



Zuzendaria: Jim Jarmusch.

Antzezleak: Roberto Benigni, Cate Blanchett.

Elkarren osagarri diren istorio txikiz osatutako filma. Istorio bakoitzaren egitura antzerakoa da: pertsonaia batzuk mahai baten inguruan, kafea hartuz, zigarroak errez eta gai ezberdinei buruz eztabaidan. Mintzagai izango dituzten gaiak era guztietakoak izango dira: Abbott eta Costello, Elvisen aurkako konspirazio teoriak, Nikola Teslaren asmakizunak, 20. Hamarkadako Paris, Te ingelesa, e.a. Zuri beltzean filmatua, aktore eta musikari talde ekleptikoa azalduko da pantailan.

# Atzera hegira



**1948**. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Itziartarra tabernan ateratako argazkia da, gaur egun Gabi jatetxea dena. Egun honetan Simon Garate "Armasio"ren despedida ospatu zuten. Argazkian ikusten denez, koadrila handia bildu zen, eta ziur oso ondo pasatu zutela. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkiko protagonistak.

1. Ilaran zutik, ezkerretik eskumara: **Jose Egidazu, Jose Arrillaga, Sebastian Juaristi, Juanito Idigoras, Floren Idigoras (†), Bautista Arrillaga (†), Mertxe Beristain, Sebastian Arrillaga, Jose Baltzola, Jazinto Agirregomezkorta (†), Bizente Lazkano (†).**

2. Ilaran, ezkerretik eskumara: **Faustino Lazkano, Patxi Alberdi, Jose Agirregomezkorta (†), Lazara Elusondo (†), umea ezezaguna, Antoni Balzolari, Genaro Lazkano (†), Manuel Loiola (†), Jose Arrillaga, Florentzio Ansola (†), Jose Domingo Arrillaga.**

3. Ilaran, eserita ezkerretik eskumara: **Floriano, Jose Zubiaurre (†), Jesus Oria (†), Simon Garate (†), Martin (†), Juan Barrenetxea (†), Leandro Osoro eta Pedro Arrillaga.**



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 5ean hil zen  
*Angel Ajubita Unzueta*ren  
emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ESKERTZA

2005eko martxoaren 3an hil zen  
*Isabel Orbea Arriabalagaren*ren  
anai-arrebek, ilobek eta gainerako sendiak,  
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







## ITURGINTZA

- Aire egokitua eta sistema integralak
- Klimatizazioa
- Berokuntza
- Gasa
- Iturgintza
- Erregai likidoak (gasoleoa)
- Eguzki energia

## ERAKUSKETA



## GOKI ERREFORMAK



**ERAKUSKETA**  
**Olaso Poligonoa, 15**  
**68 pabiloia**  
**20870 ELGOIBAR**

**Tel.: 943 74 28 80**  
**943 74 42 23**  
**943 74 46 40**  
**Faxa: 943 74 45 87**



## 3. Edizioa

# IMH SARIAK



ISO 9001



- Ikasle ohi aipagarria
- 2004-05eko ikaslea
- Fabrikazio Arloko ikaslea, 2004-05 ikasturtea



### Sariak banatzeko ekitaldia

Data: 2005eko apirilaren 11  
 Ordua: 12:30etatik 13:30era  
 Lekua: IMHko areto nagusia

**Makina Erremintaren Institutua**  
 Azkue Auzoa, 1  
 20870 ELGOIBAR  
 Tel. 943 74 82 65 - 74 41 32  
 Faxe 943 74 41 53  
 imh@imh.es / www.imh.es

### Helburua

Makina Erremintaren sektoreari egiten dioten ekarpenagatik esker ona adierazi ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei.

### Hautagaien aurkezpena

IMHko ikasle, ikasle ohi, irakasle, langile eta zuzendaritzak eta baita enpresa fundatzaileek eta IMHrekin elkarlanean jarduten duten enpresek aurkeztu ahal izango dituzte hautagaiak. Hautagaiak aurkezteko epea datorren 2005eko martxoaren 21ean bukatuko da.

Babesleak:

